

Euskal dantzari buruzko inkesta

**Euskal Kultur Erakundea
Claire Rousier
2011ko apirila**

Euskal Kultur Erakundeko zuzendari den Pantxoa Etchegoin eskertu nahi nuke bereziki ene entzuten egonik, elkarrizketan aritzeko duen gaitasunarentzat, eta egin didan konfiantzarengatik; baita EKEko lantalde osoa, Maia Etchandy besteak beste, euskal dantzaren eragileekin ukan harremanetan hurbiletik lagundu nauelako.

Lan hau burutzean, jende idekia eta bihotz onekoa ezagutu dut, eta Euskal Herriaren eta euskal dantzentzat duten maitasuna helarazi didate: haien eskuzabaltasuna gabe, inkesta hau ez zen egiten ahalko. Haiek ere eskertzen ditut.

Tutoretza desberdinekin ukan harremanak (DRAC, Kontseilu Orokorra, Eskualdeko Kontseilua) ene eginkizunari indarra eman dio, eta gomendioak hitzartu ahal izan dira.

Euskal dantzen ondare aberatsean dinamika berri bat sortuko den esperantzarekin.

Claire Rousier
EKEko karguduna.

Aurkibidea

1) Estatuaren eta elkargoen beha

2) Dantzaren egoera gaur egun

- a) Euskal dantzatik euskal dantzetara**
- b) Euskal nortasunaren neurgailu sendoa**
- d) Hego Euskal Herriarekin lotura historiko eta kulturalak**
- e) Koreografian gaitasunak dituen herria**

- *Pastoral idazle, dantzari, pedagogo eta koreografoek haien lanei esker, lurraldea animatzen dute.*
- *Euskal dantzan berezituak diren ikerleak*
- *Kultura eragileak*

3) Nahiak eta beharrak

a) Koreografia kulturaren eskasia

- **Formakuntza beharrak**
- *Dantzarien formakuntza*
- *Formatzaileen formakuntza*
- *Euskal dantzen sartzea Baionako CRRan*
- **Tokien azpiegitura**
- *Gelak kurtso eta errepikentzat*
- *Kreazio eta zabaltzearentzat laguntza beharra*

b) IDB

4) Gomendioak

- a) 1. Ardatza: Euskal dantzaren ondarea babestu**
- b) 2. Ardatza: Ikerketa etnografiko, soziologiko, estetiko eta historikoa.**
- d) 3. Ardatza: hedatzea/balioztatzea/transmisioa**
- e) 4. ardatza: Formakuntza**
- f) Baionako CRRan euskal musika eta dantza integratu**
- g) 6. Ardatza: Praktika amaturrei sostengua**
- h) 7. Ardatza: Agerraldi erritualak sostengatu**
- i) 8. Ardatza: Ikusgarrien muntatzea lagundu**
- j) 9. Ardatza: Errepika gelen antolaketa**
- k) 10. Ardatza: Gaitasunen banaketa IDB/EKEren artean**

5) Inkestarentzat ikusi pertsonen zerrenda

1) Estatuaren eta elkargoen beha

Euskal dantzak erreferente kultural eta nortasun neurgailu garrantzitsu bat irudikatzen du Iparraldean. Dantza talde anitz bada –bereziki talde amatur eta erdi-profesionalak- eta Iparraldean gairi, baldintza biziki desberdinetan egiten dituzte ikusgarriak. Halere, 1950 urteetako bizitasun koreografikoaren ondotik (talde folkloristak biziki aktiboak ziren, eta dantzak asko praktikatzeko ziren), euskal dantzek kalitatean galtzen dutela, eta adierazpen forma horrekiko zen kartsutasuna ahultzen dela iduri luke.

Hortaz oharrearekin, elkargoen dantzari buruzko inkesta bat martxan ezartzea erabaki dute, gomendio hauekin:

- Formakuntza eta irakaskuntza.
- Euskal dantzaren berriztatzea.
- Kreaio garaikidea.
- Zabaltze baldintzak.
- Erakunde publikoen, Euskal Kultur Erakundearen (EKE) eta Iparraldeko Dantzarien Biltzarraren (IDB) eginkizunak.

EKEk du inkesta horren kargua ukan, egituraren birzehazte garaian zelarrik. 1990ean sorturik, orain EKEk obragintzarako laguntza segurtatu behar du euskal kultura, politika kultural publikoetan integratzeko. EKE hautuzko solaskide da beraz eremu horretan erakunde eta elkargoentzat. Balioztatze, kontseilu, ikerketa, eta proiektuen laguntza: hara zer diren oraindik goiti EKEren aktibitate programaren osagaiak. EKErentzat euskal dantza esperimintazio gai izanen da funtzionamendu berri horrentzat.

Ber mementoan, euskal dantza talde amaturren egoera zertan den ikertzen ari da IDB EKEekin hitzarturik. EKEko eta IDBko administratzaile izan den Patrick Larralde musikari tradizional eta irakasleak du gidatu.

2) Dantzaren egoera gaur egun

a) Euskal dantzetatik euskal dantzetara

Inkesta burutzean, elkarrizketa anitz eginak izan dira (ikus eranskinetako zerrenda). Ikusi ditugun eragile guztiak zale handiak dira, eta euskal dantzaren praktika desberdinetan engaiatuak dira: koreografo, ikerle, sareen animatzaile, euskal kultura munduko militante, irakasle, etb. Iraganaz eta gaurko egoeraz egiten duten analisiak desberdinak dira ikuspuntuaren, eta bereziki praktiken arabera.

Egin elkarrizketek begi-bistan uzten dute ez dela “euskal dantza” aipatu behar, baina “euskal dantzak”.

Izan ere, dantzen eta praktiken funtzio eta nortasunak hain dira desberdinak, non bereizi behar diren. Honela kategoriza daitezke:

- **Dantzaren praktika “erritualak”** (pastorala, maskarada, ihauteri, toberak, Besta Berri, etb.) Praktika horietan sartuak diren taldeak noiztenka baizik dira mobilizatuak, eta

beti agerraldi batekin loturik. Herriko jende anitz mobilizatzen dituzte praktika horiek, adin guzietakoak, neska eta mutiko nahasirik.

- **Herrietako dantza taldeek** praktika erregular bat dute: kurtso bat astean, euskal dantzak besteekin ikasi dituen boluntario batek emanik. Talde horiek praktika "erritualak" ere egiten dituzte artetan.
- **Norberarendako dantzaren praktika:** dantzaldien praktika, edo hiri eta herrietan usu antolatuak diren mutxikoak. 1980 urteen hastapenean agertu dira berriz mutxikoak edo jautziak. Gaur egun, dantzaldi herriko horiek igandetan gertatzen dira herri anitzetan. Denei idekiak dira, eta arrakasta handia dute, Baionako bestetan adibidez. Biziki preziatuak dira eta geroz eta gehiago hedatzen ari dira.
- **Talde folklorikoen** kopurua apaltzen ari da. Turismo bulegoek edo hotelek galdeginik, euskal dantza aurkezten dute, gehienetan turistentzat.
- **Talde profesional edo erdi-profesionalak** eszena gaineko dantzei emanak dira. Talde horiek ibilmolde desberdinak dituzte, eta aldizkatzen dira:
 - *ikerlanetan oinarriturik dantza tradizionalak eszenaratu
 - *dantza tradizionalako errepertorioan oinarrituz sormena garatu, tradizioari sail narratibo bat antolatuz eta euskal nortasunari buruzko gaiak jorratu
 - *euskal dantzen hiztegia beste estetika koreografikoa batzuekin gurutzatu: flamenco, hip hop, dantza garaikidea, etb.

Historikoki euskal dantzak dantza klasikoarekin hurbiltasun estetiko eta teknikoak dute, alta, euskal dantza eta dantza klasikoak nahasteko ahaleginik ez da kasik gaur egun kreazio lanetan. Halere, dantza konpainia ospetsuen ezaugarri izan da:

*Olaeta (Segundo Olaetak sortu konpainia).

Segundo de Olaetak (1896-1971) 1927an lehen euskal dantza taldea osatzen du. 1937an, Iparraldean errefuxiatzen da. Iparraldeko dantzak biltzen ditu, eta Parisen finkatzen da: bere taldeak antzoki zenbaitetan agerraldiak egiten ditu. Bigarren mundu gerla hastearrekin, Segundo de Olaeta Biarritzera jausten da eta *Grupo Olaeta* sortzen du, *Oldarra* Balleten arbasoa. 1943an, Bilbora sartzen da, eta 1950an *Olaeta* Balletak sortzen ditu. Konpainia horrekin mundu osoan gairi ibiltzen da, eta Ipar Euskal Herrira itzultzen da ikusgarrien ematera.

**Oldarra* Balletak. 1945an, *Grupo Olaetak*, euskal musika ondareko obrak interpretatzen dituen dantza eta abesbatza talde mistoak, *Oldarra* Balletak sortzen ditu.

**Etorki* Balletak (1954-1984): Philippe Oyamburuk *Etorki* konpainia profesionala sortzen eta zuzentzen du.

Kartsuki ari baitira eta biziki inplikatuak baitira, eragile horietarik anitzek, "euskal dantzez" duten pertzepzioa "haien euskal dantzari" mugatzen da, eta koreografiaren praktikaz duten ezagutzari, hori, errealitate aberats eta anitzaren kaltetan.

Egoera horrek, ingurumen baten zatitzen erraztu du, ahanzi gabe iraganen jadanik pertsonen artean gatazkak izan zirela. Alta, guziek balore berak partekatzen dituzte: Euskal Herriari eta euskal kulturari azkarki lotuak dira, euskal dantzentzat zinezko maitasuna dute, eta hauen sustatzeko nahikaria dute.

Bizkitartean, inkestarentzat ukan harremanek, kuriositatea, idekidura, eta elkarrizketa piztu dute. Tokiko eragileek **aldaketa eta bilakaera nahikeria** erakutsi dute, ondorioz tokiko indarren elkarretaratze azkarrago bat izan liteke euskal dantzen inguruan.

b) Euskal nortasunaren neurgailu sendoa

Euskal dantzek apaltze bat ezagutzen dute eta eragile desberdinek gogo histura bat: haien iduriko dantza taldeen kopurua ttipitzen ari da, mutikoak geroz eta gutiago dira, eta *Dantzari Ttiki* eta *Dantzari Eguna* bezalako elkarretaratze handiek dantzari eta publiko gutiago biltzen dituzte.

Sentimendu hori baieztatuko lukeen zenbakirik ez da, eta nazio mailako zenbakiekin konparatzea ere zaila da erabili metodologiak eta hunkitu biztanleria-mustrak desberdinak baitira. Ditugun zenbakiek konparaketa guti egiten uzten dute. Izan ere, Patrick Larralde EKErentzat egin inkesta euskal dantzei buruz baizik ez da (dantza kurtso erregularrak) eta ez lehenago aipatu euskal dantzaren praktika guzietan buruz; haatik DEPS-eko (Kultura eta Komunikazio Ministerioko Ikerketa eta estatistiken Departamendua) inkestek (Olivier Donnat eta Philippe Teillet-ek eginak 2008an) estatistika datu zabalagoak ekartzen dituzte edo biztanleria-mustra desberdinei buruz dira.

Patrick Larralde egin inkestak erakusten du galdekatu 16 herritarik 14ek euskal dantza badutela aktibitate gisa, eta galdekatu herri elkargoetarik 6 euskal dantzari lotu aktibitate kulturaletan inplikatua direla. Inkestak erakusten du Iparraldean 29 dantza talde direla, 16800 dantzarirekin.

Olivier Donnat-ek DEPSentzat egin ikerketak frantsesen praktika kulturei buruz aro numerikoan (2008an), erakusten du helduen dantzaren praktikak gizonen %5 eta emazteen %11 hunkitzen dituela, edozein dantza motarentzat. Hala ere, apailatu galdeketa ez du dantzaren praktika mota zehazten, beraz artetan dantzaldira joaten bada edo klubera dantzatzerara, galdekatuak dantzaren praktika amaturra duela erantzuten ahal du.

Alta Iparraldean, mutxikoak dantzatzerara joateko usaia bada, eta parte hartzaile anitz biltzen ditu urtean zehar gerta daitezkeen besta desberdinetan, bereziki uda garaian. Dantzaldi horietara hurbiltzen den publikoa mistoa da, baina ez da azterketa estatistikorik biztanleriaren ehuneko zenbat hunkitzen dituen zehazteko.

Philippe Teillet-ek azpimarratzen du bere DEPS inkestan (2008) CNR eta ENMDn egiten diren praktika amaturren barne, dantza egiten duen publikoaren %95 neskak direla eta %5 mutikoak.

Patrick Larralden arabera, dantza taldeetan %28,7 mutiko bada eta %71,73 neska. 5 eta 18 urte artean, %24,17 mutiko, dira neskak %53,33 direlarik, adin guziaz kontatuz. Erran nahi baitu %31,18 mutiko dela %68,81 neskeentzat dantza taldeetan, 18 urtetik behera dutenentzat –adin berak dira kontserbatorioan. Euskal dantza taldeetan beraz, 18 urte baino gutiago dutenentzat, heren bat mutikoz osatua da bi heren neskeentzat.

Patrick Larralde azpimarratzen du taldeen kopuruetan, dantzarien %45,6 12 urte baino gutiago dutela, %26,96 nerabeak direla eta %27,44 helduak.

Datu horiek adierazgarri iduritzen zaizkigu jakinez pantailaren kultura azkartzen ari dela, musika eta filma mailan Interneten bidez aldaketa sakona egiten ari dela, gainera Euskal Herrian, errugbiarentzat den zaletasuna ezagutu eta –usu dantzaren lehiakide gisa kontsideratua da mutikoentzat. Argi da **euskal dantzek praktika amatur handia ezagutzen dutela (ttipitzen ari baldin bada ere), eta mutikoen eta helduen parte hartzea, batz bestez nazionala baino aise goragoa da.**

Inkestak erakusten du ere, galdekatu 29 dantza taldeen gain, %66ek dantza erabiltzen dutela nortasun tresna gisa, tresna kultural eta artistiko gisa. Horrek duke esplikatzen euskal dantzen bizitasuna. Dantzan ari diren jendeen aniztasuna eta inplikazio herrikoia handia, fenomeno ohargarria da Frantzia mailan, dantzen praktika nerabezaroan gelditzen baita, eta bereziki nesken aktibitatea gelditzen baita.

Euskal salbuespen horren arrazoiak bere dantzen historian bilatu behar dira, Iparraldeko eta Hegoaldeko nortasunari loturik, Espainiako gerlak eta Francoren jazarkundeek markaturik, baina ere mugaz bi aldeetan hitz egiten den hizkuntza bakar batek markaturik; testuinguru horretan nortasun sentimendua azkartu da. Horrela, dantzak “euskal kulturaren” barne dira eta historian zehar ezagutu duten aldaketengatik (edo esker) **komunitatearen erreferente garrantzitsu** gelditzen dira. Gauza bera euskal musika eta kantuentzat, baita bertsolaritzarentzat.

Bizkitartean, hizkuntza, kantua eta bertsolaritzaren gisa, euskal dantza tradizioaren funtsezko osagaia baldin bada, diziplina hori **integrazio bektore inportantea** da ere Euskal Herrian, honek demografia eta gizarte mailan aldaketa sakonak jasan baititu, eta hemendik aitzina dantzak, euskal nortasun anitzaren asmatzen lagunduko du. Izan ere aisialdi horri esker, norberak talde batean sartzeko parada du, ikasteko zaila den euskara ikasi beharra gabe. Gainera, **belaualdien artean loturak sortzen** laguntzen du.

d) Hego Euskal Herriarekin lotura historiko eta kulturalak

Ikusi ditugun eragile guzietan, **Iparraldea eta Hegoaldea lotzen dituzten lotura kulturalak** aitzinera ezartzen dituzte, baita mugaz bi aldeetan euskal dantzak duen lekua indartzeko eta dinamizatzeko zabaldu behar diren sinergiak azpimarratzen dituzte.

Oroitarazteko, Hegoaldean 4 probintzia dira. Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiak autonomia erkidegoa osatzen dute, eta 4.a Nafarroako erkidegoa da. Euskara hizkuntza ofiziala da. Autonomia erkidegoa azkarki jendeztatua da, eta Espainiako eskualde urbanizatuetarikoia da.

Iparraldean 3 probintzia dira: Lapurdi, Nafarroa behekoa eta Xiberoa. Euskaldunek bi eskualde bereizten dituzte: kostaldea, Baionatik Hendaiara (azkarki jendeztatua, euskaraz ari den jende gutirekin) eta barnealdea, gehienbat nekazaria, eta guti jendeztatua. Bere baserri izaerari esker, euskaldun gehienak eskualde horretan aurkitzen dira, eta hori ere

garatuenak dantzaren praktika “erritualak” (pastorala, maskarada, toberak, Besta Berri, etb.), bereziki Xiberoan.

Probintzien arabera aldakiak dituzten euskal dantza anitz bada, eta horietarik asko Iparraldean eta Hegoaldean aurkitzen dira. Dantza horien “migrazioaren” ezaugarri, fandangoa, jatorriz Hegoaldekoa, Iparraldean azkarki hedatu da.

Bizkitartean, ekonomia anitzez azkarragoa da Hegoaldean Iparraldean baino. Hegoaldean aspalditik bermatzen dute euskal dantzaren kreatzioa, formakuntza eta zabaltzea. *Dantzan.com* web orriak euskal dantzaren inguruan antolatzen diren agerraldiak biltzen ditu. Hegoaldean, dantza munduko pertsona ospetsua da Juan Antonio Urbeltz, euskal dantza tradizionaleri buruzko ikerle garrantzitsuenetakoa baita. Koreografo, antropologo, eta folklorista da, eta 1960tik goiti euskal dantzak biltzen hasi da, ondare hori babesteko, transmititzeko eta arraberritzeko. Tradiziotik abiatuz, transmititzeko eta sortzeko zuen borondateak, bere ibilbidea xedatu du. *Arabako Dantzarien Biltzarra* biziki dinamikoa da eta euskal dantzan oinarrituz, sorkuntzan ari diren konpainia gazteak, nazioarteko ezagupena ukaiten hasten dira. –*Kukai* taldea eta *Aukeran Konpainia* adibidez. Gipuzkoako *Dantza Hirian* jaialdiak, karrikako artea, sorkuntza garaikidea eta dantza tradizionalaren arrai-interpretazioa nahasten dituen sorkuntza proiektuak laguntzen ditu; Hegoaldean eta Iparraldean.

Inkestarentzat egin elkarrizketek erakusten dute Iparraldean, Hegoalde modelotzat dutela, eta dantzari zenbaitek kasik “gutiagotasunezko konplexua” senditzen dutela, nahiz eta haien lurraldean ere gaitasun eta aberastasun handia duten.

e) Koreografian gaitasunak dituen herria

Inkestarako egin elkarrizketak eginik, agerraldi desberdinak ikusten izanik, eta artistikoki egiten zena ikusirik, **agertu da Iparraldean ere gaitasun anitz dela euskal dantza mailan.**

- *Pastoral idazle, dantzari, pedagogo eta koreografoek haien lanei esker, lurraldea animatzen dute.*

Bigarren mundu gerlatik oinarritzko funtzioa ukan duen artista belaunaldiak bizirik segitzen du, eta zenbait oraino aktiboak dira. Garai baten memoria dira: dantza tradizionalen praktika gutitu zen garaiarena, baina protagonista zenbaiten inplikazioari esker dantzari berriztapena eman dion garaiarena. Iparraldean ikerketa lan zenbait eginak izan dira, Pierre Beteluk (1940. urteak) adibidez edo Jean-Michel Guilcher-ek (1970. urteak), eta euskal dantza talde batzuei esker, euskal dantzak pizkunde bat ezagutu du sozial mailan eta erritual mailan. Beste batzuek, Jean Nesprias (*Orai Bat* balletak, dantzari, musikari eta pedagogo), Philippe Oyamburu (*Etorki* balletak, dantzari eta koreografo), edo Koldo Zabalak (Oldarra balletak, dantzari, koreografo eta pedagogo – Baionako CRRen besteak beste) arraberritze horretan parte hartu dute, eta garai horretako pertsona aipatuak dira. **Artista horiek zinezko jakintza eta gaitasuna dute, baita laster bildu behar litezkeen artxibo zenbait.**

Gaur beste artista batzuek **segurtatzen dute segida**: Roger Goyhenetche (*Leinua* taldeko dantzari eta koreografo), Claude Iruretagoiena (*Maritzuli* konpainiako dantzari eta koreografo), Christian Larralde (*Anaigazteak* konpainiako dantzari eta koreografo) eta Pascale Lascano Benoît Lamerain-ekin (*Zarena Zarelako* konpainiako koreografo eta

musikagile). Talde horietarik bakoitzak desmarta berezia du, baina beti dantza tradizionala errepertorioetik abiatzen dira, dantzei bide berri bat emateko. Hau, ikerlanei esker, sarrera tematikoei esker eta beste diziplina koreografikoekin nahasketari esker -hip hop edo flamenco bezala.

Gehienetan musikari tradizionalak deitzen dituzte lan horretarako. **Beren burua ekoizten dute**, artetan herriko etxeen edo EKEren laguntzak ukanik ere. Haien aitzinkontuaren parte handiena antzoki baten alokairuan partitzen da edo pilota plaza edo gimnasio baten antolaketa teknikoan, jantzien fabrikazioan eta musikarien ordainketan. **Zailtasunetarik bat errepiken egiteko gela baten ukaitea da**. Ezagutza tekniko handia ukanik ere, dantzari gehienak amaturrak dira eta hori, adierazpen forma horren osagai estetikoetarik bat da. Ekoizpen horien irabaziak sartzei esker egiten dira gehien bat, eta kopuru aski handiak dira, jendeak ikusgarri horiek estimatzen baititu eta ikusle asko biltzen baitituzte. **Ikusgarriak gehienetan kalitate handikoak dira**, eta dantzari eta musikari asko biltzen dituzte taula gainean. **Talde amaturrak baitira, Estatuaren edo elkargoen laguntza guti dute**, hauek profesionalen sorkuntza lanei ematen baitira. Euskal dantza tradizionala heldu diren beste artista zenbait **dantza garaikideari lotu dira**, baina euskal dantzak bazterrerara utzi gabe. Hala nola Pantxika Telleria (*EliraE* konpainiako dantzari eta koreografo). Pariseko Kontserbatorio nazionalan (CNSMDP) formatu da eta Estatuko Diploma badu dantza irakasle gisa. Eskoletan dantza kurtsoak ematen ditu, eta elkarte desberdinentzat lan eginez dantza tradizionalen garapenean parte hartzen du. Kukai konpainiarekin ari izan da elkarlanean berriki, eta emeki-emeki, haurrei zuzendutako ikusgarrietan berezitu da.

Mizel Th  ret-k (dantzari eta koreografo dantza tradizional eta garaikidean) sorkuntza eta euskal dantzen arteko trukaketak berpiztea hautatu du, eta desmarta garaikide bat bereganatzea. Dantza tradizional eta garaikidearen arteko ibilbide baten ondotik 80. urteetan, *Ekarle* konpainia sortu du Baionan. Geroztik, tradizioetik urrundu da, garaikideari hurbiltzeko. Baionako CRRean dantza tradizionalak irakatsi ditu, Koldo Zabalaren ondotik.

Artista gazte zenbaitek, euskal dantzei buruz duten jakintzetan oinarrituz, ibilbide berri bat hasten dute dantza garaikidea edo jazz dantzara buruz joanez, profesionalizatzeko asmoarekin. Lorentxa Iturrালের kasua da adibidez (*EliraE* eta *Kukai* konpainietako dantzari profesionala), edo Arantxa Lannes-ena ere, dantzari eta dantzako formakuntza profesionala egiten ari dena Toulouse-ko James Carl  s eskolan. Euskal dantzari buruzko memoria idatzi nahi luke: "nola bizi dantza tradizionala bere garaian, edo dantza tradizionala nola "garaikidetu".

Patxi Perez bezalako artistak (dantzari, pedagogo eta mutxiko eta dantzaldietan berezitua) **dantzaldien animazioan berezitu dira**. Beste pedagogo anitzek euskal dantza transmititzen dute kurtso erregularren eta ikastaldien bitartez, euskal dantza taldeentzat bereziki: irakasle profesionalak Claude Iruretagoiena, C  line Duperou, Jos   Cazaubon, Amadeo Txoperena, eta Jon Iruretagoiena, edo boluntarioak, Maddalen Dupuy bezala (Baigorriko *Arrola* taldeko partaide, irakasle eta dantzari).

Ikusgarri osoa, pastoralak adierazpen modu anitz biltzen ditu: musika, kantua, olerkia, dantza, komedia, deklamazioa. Pastoral hastapenean, Euskal Herriko historiari lotua den gai bat aurkeztua da hitzurre luze batean (*lehen peredik  a*). Laburrago den azken solasarekin bukatzen da (*azken peredik  a*), usu moralizantea dena. Bi parte horien artean, jeltaldiak

badira, non deklamatzan den, eta horien artean musika, kantuak eta dantza tartekatzen dira. Pastoral batek zenbait oren irauten du, eta baserrialdean egiten da. Pastoral bakoitzak idazle bat badu, eta Iparraldean zenbait dira: Jean-Louis Davant (idazle, euskaltzain), Jean Bordaxar (*Aitzindariak* xiberotar dantza taldeko arduradun), Patrick Quéheille (*Etxahun* elkarte kulturaleko lehendakari), Junes Casenave Harigile (Donapaleu), Jean-Michel Bedaxagar (kantari xiberotarra), Pierre-Paul Berçaits, Jean-Pierre Béhocaray Bizkai, etb.

- *Euskal dantzan berezituak diren ikerleak*

Iparraldean gaitasunak badira ikerketa mailan. Ikerle zenbaitek euskal dantzen historia markatu dute, Pierre Betelu edo Jean-Michel Guilcher bezala adibidez.

40. urteetan Iparraldean errefuxiatu ziren Hegoaldeko dantzari zenbait, *Oldarra* balletean bildu ziren euskal kultura defenditzeko eta garatzeko. Testuinguru horretan Pierre Betelu mutxikoei interesatu zen eta Pirinioen bi aldetako dantza tradizionalen biltzeko ikerketak hasi zituen. Bidarten, Biarritzen eta Baionan irakatsi zituen eta Uztaritze eta Hazparnen ihauteri lapurtarra antolatu zuen. Beteluren jarraikitzaile ohia den Thierry Truffaut-*k* ihauteriei buruz ikerketak egiten segitzen du. Hau, etnologo da, EHESeko (Ecole des Hautes Etudes en Sciences Sociales) diplomatu, Antropologian doktoretza egiten ari, eta *Euskal Dantzarien Biltzarreko* lehendakari ohia; *Joaldun et Kaskarot: des carnivals en Pays Basque* liburua idatzi du (Elkar, 2006).

Jean-Michel Guilcher etnologo da, eta ohorezko ikerle CNRSen. Frantziako dantza tradizionalari buruzko bere ikerketentzat ezagutua da (Hélène bere emaztearekin egin dituenak), bereziki Britainia Behereko eskualdean egin ikerketentzat, eta ondotik kasik Frantzia osoan. Biarria eta Euskal Herriari buruzko ikerketen emaitzak liburu batean argitaratu ditu: *La Tradition de danse en Béarn et Pays basque français*, 1984, Éditions de la Maison des sciences de l'homme.

Ikerle belaunaldi berri bat bada gaur egun, gaitasun desberdinak dituzten ikerle batzuen gidaritzapean. Adibidez Xabier Itzaina (CNRSen ikerle, toberetan berezitua, dantzari eta musikari), Thierry Truffaut (etnologo), Jean-Baptiste Coyos (Baionako IKER UMR 5478 CNRS) edo Henri Duhau, *Euskaldun Gazteria* mugimenduko militante eta *Lapurdiko ihauteriak eta mutxikoen pizkundera* liburuaren idazle (2010).

Lan desberdin horiek dantzaren alde “erritualari” edo tradizionalari buruz dira, eta guti euskal dantzen folklorea historiari buruz eta guti ere eszenara egokitzeari buruz, joan den udan Baionako Euskal Museoan izan den erakusketa salbu. Olaeta balletari buruz zen, esperientzia artistikoa erakusten zuen, hau, Olaeta familiak bere ondare kulturala eman izan baitu Bizkaiko Foru Aldundiari.

Dantzaren praktika “erritualen” ikerketez gain (pastorala, maskarada, ihauteri, toberak, Besta Berri etb.), herrietako dantza taldeen osaketa eta bilakaerak, mutxikoen praktikak, talde folklorikoen historiak eta ikusgarriak egiten dituzten talde profesional edo erdi-profesionalen historiak ere ikerleen interesa merezi lukete. **Historia politikoa, mentalitateen**

eta arteen historia, edo soziologia eta antropologia bezalako alorrak ikertu beharko litzateke.

- *Kultura eragileak*

Iparraldeak eta Akitaniako eskualdeak erakunde asko dituzte euskal ondare koreografikoari sensibilizatuak direnak eta hauen sustatzeko nahia erakusten dute.

Lurraldeko elkargoek eta Akitaniako DRACak, ikerketa hori abiarazi eta segitu du; ordezkarigisa baziren Jérémy Obispo (Akitaniako Eskualdeko kontseilua, Hizkuntza eta eskualdeetako kulturetako kargudun), Olivier Ponthus (Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorra, Antolaketa, Garapen kulturalak, eta Hizkuntza politikako buru), Jean-François Sibers (DRAC, bildumen, dokumentazioaren eta komunikazioaren saila) eta Patrick Le Dauphin-Dubourg (DRAC, musika eta dantzan kontseilari). Harreman erregularrei esker eta EKEko ordezkariek (bereziki Pantxo Etchegoinek ikerketa gidatuko duen taldearekin) plantan ezarri desmarta partizipatiboari esker, ikerketatik atera gomendioen bidez beharko litzukete segurtatu: **Kontseilu orokorrak eramaten duen irakaskuntza artistikoen planean musika eta dantza tradizionalak sartzea, artxibatze, formakuntza eta sorkuntza sustengatzen duten politiketan.**

Jakes Abeberry (Oldarra balletetako dantzari, herriko kontseilari, hiri elkargoko ordezkar, Biarritz Culture eta Maitaldiko Lehendakari), Biarritz zentro koreografiko inportantea bilakarazteko lanean ari izan da, bereziki Maitaldia sortuz duela 20 urte, eta Malandain Ballet/Biarritz Zentro koreografiko nazionala bertan finkatuz. Maitaldiak erregularki euskal koreografoak programatzen ditu eta CNNak Maritzuli konpainiako Claude Iruretagoiena dantzari-koreografoa errezibitzen du. Thierry Malandain, Yves Kordian (CCNeko zuzendari ordezkoa) eta Gaël Domenger-ekin (CCNen baitan formakuntza eta estudioan errezibitzearen arduraduna) zenbait aldiz elkartu gara inkestaren kariatara. Ohartuki errezibitu gaituzte, eta **euskal dantzen sailean CCNek jadanik hasiak dituen ekintzei indarra emateko nahikeria erakutsi dute, konpainiei eman sostengu azkarraren bidez, topaketa eta trukaketen bidez.**

Eskualdeko kontseiluko agentzia den Akitania Eskualdeko Erakunde artistikoaren (Oara) eginkizuna, Akitaniako eskualdean garapen kultural eta artistikoan parte hartzea da, hori, ikusgarritasun. Oarak antzerkia, dantza, musika, karrakako arteak eta pistako arteak sostengatzen ditu. Dituen karguen barne: lurraldeko elkartasun proiektuen garapena, ikusgarri profesionalen ekoizpena (bakarrik edo elkarlanean), sorkuntza eta sortzaileen sostengua Akitania lurraldetik kanpo. Joël Brouch, Oarako zuzendaria erne egon da ekoizpen artistikoaren alde horri Akitaniako eskualdean. Halere, **eta interesa ikusten baldin badu ere, erakundeentzat ekoizpen amaturrak sustatzeko zailtasunak azpimarratu ditu.**

3) Nahiak eta beharrak

a) Koreografia kulturaren eskasia

Patrick Larralden inkestak erakutsi du taldeek ez zekitela dantzak sailkatzen, eta batzuetan, dantzak izendatzen ere ez. Problematika hori orokorragoa da, eta koreografia mundua hunkitzen du osoki, diziplina guziak nahasirik.

Kultura koreografiko eskasia hori anitzetan errepikatu dute galdekatu eragileek. Artetan, egiazkotasun baten bilaketa, edo probintzia bateko “dantza berezi” baten bilaketak, barneko gatazkak areagotzen ditu, **ondare koreografiko batetik abiatuz, eta herri baten historia politikoa eta kulturalari loturik, aldaketaz, nahasketaz, maileguz, eta berrasmatzez egin historiaren kontra doa.**

Folklorearentzat mesfidantza bat bada beti. Usu ekoizpen turistikoari eta estereotipoei lotua da, eta mentalitateetan, Pétain Marexalaren propagandari lotzen da, baserriko baloreak laudatzen baitzituen. Alta, “folklore” hitzak lurralde edo talde baten dantzak (imitazioz transmitituak) seinalatzen ditu, edo talde folklorikoek dantzatu erreperitorioak. Industrializazioak gizarte tradizionalen desagertzea eragin du -eta beraz dantza tradizionalen funtzioa- eta talde folklorikoak gabe, erreperitorio tradizional gehienak desagertuak litzateke.

Euskal dantzen historiaren alorrean ikerketa sustengatuz eta denek lasaiki ulertzeko hedatze tresnak sortuz, “tradizioaren jabeen” eta “sorkuntzaren protagonisten” arteko bereizketak ezituko litzateke. Historian zehar artistek hartu bideen desberdintasunak ulertaraztean, -hainbat desmarxa bateragarri eta osagarri bezala- mugimenduan den gorputzaren ondarearen aberastasuna erakutsiko luke.

Lehen lehenik, zinezko ondare politika bat behar liteke martxan ezarri, eta gaur egun Euskal Herrian diren eragileen ahozko memoria, memoria audiobisuala eta artxibistikoak bildu behar litzateke.

• Formakuntza beharrak

Galdekatu pertsona guziak puntu batean ados dira: dantzarien eta formatzaileen formakuntzan.

• *Dantzarien formakuntza*

Euskal dantza taldeen praktikak erakusten duen bezala, ahal handiak baldin badira ere, dantzarien hain teknikoa anitz aldatzen da kalitate mailan, zenbait herrietako amaturren artean eta gaitasunak dituzten profesionalekin ikasi dutenen artean. Ezagutza teknikoak, taldeen kopuruarekin batean apaltzen dira, eta musikari tradizionalak falta dira kurtsoen laguntzeko.

Orokorkiago, dantza taldeek lehen baino zailtasun gehiago zituzten mutikoak sarrarazteko, baina bereziki 18 urte pasatu eta, haien atxikitzeke. Aisialdiak geroz eta gehiago dira, eta mutikoak errugbia bezalako kirolei buruz erakarriak dira, partiden bitartez, besteen kontra aritzen ahal dira, eta publikoki haien gaitasunak erakusten ahal dituzte.

Harremanak, topaketak eta emulazioa laguntzen duten **proiektu federatzaile** edo zeharkako proiektu **guti** da, IDBk antolatu *Dantzari Eguna* eta *Dantzari Ttikiz* gain.

Euskal dantza eta musika lehiaketa baten plantan ezartzearekin urtero, uda garaian, taldeak elkarretara litezke batak besteen kontra lehiatuz, eta turismoarentzat erakargarritasun bat ukanez. Lehiaketa hori programazio berezi baten egiteko parada litzateke ere bai: dokumental, publiko zabalari zuzendu hitzaldiak, eta konpainia profesionalen ikusgarri. Elkarretaratze horren kariatara, euskal dantzak haien lurraldetik kanpo ezagutaraziak litezke komunikabideei esker. Epaimahaia espezialistez osatzen ahal liteke baina dantza eta musika alorreko pertsona ospetsuez. Sariak taldeen lanak kalifikatuko eta zabalduko lituzkete. Azkenik, Kontseilu orokorrak, orain prestatzen ari den irakaskuntza artistikoen planean euskal dantza eta musika tradizionala sar litzake.

- *Formatzaileen formakuntza*

Gehienetan boluntarioak diren dantza irakasleek, aitortzen dute **dantzaren pedagogian ez direla formatuak, esperientzia baldin badute ere.**

Irakasle anitzek euskal dantzen erreperitorioa eta historiari buruzko ezagutzak zabaldu behar lituzkete. Bestalde, mugimendu dantzatuan gorputzaren azterketa funtzionalarentzat formakuntza musikala onuragarri litzateke (dantzaren Estatu Diplomaren barne irakatsia den diziplina).

Laurent Gignoux, (Akitaniako CEFEDEMeko zuzendari nagusi) eta Josiane Rivoire (Akitaniako CEFEDEMeko zuzendari pedagogiko dantza mailan) **Euskal Herrira deslokalizatuko litzatekeen formakuntza** horren alde agertu dira. CEFEDEM, IDB eta EKEn artean hitzartu behar litzateke programaren zehazteko. Arnaud Peruta (Baionako Maurice Ravel CRReko zuzendari) **formakuntza hori Baionako CRRean errezibitzeko** prest liteke.

- *Euskal dantzen sartzea Baionako CRRean*

1999tik goiti, Musika Eskola Nazionala, CRR bilakatu da. Baionan, Biarritzen, Donibane Lohizunen eta Hendaian kokatua da. Baionako adarra da nagusia, eta Biarritzekoa, CCNarekin loturan, dantzari dedikatzen da bereziki .

CRRa Baiona Angelu Biarritzeko hiri elkargoak, eta Donibane Lohizune eta Hendaiako Herriko etxeak biltzen dituen sindikatu anitzak finantzatzen ditu. Kultura eta Komunikazio Ministerioak (Akitaniako DRACaren bidez), Akitania Eskualdeko kontseiluak, eta Kontseilu Orokorrak dituzte diru-laguntzak ematen. Musika eta kantu tradizionala Beñat Achiaryk ditu irakasten, eta txistua, Agnès Rospidegaray-ek. Urte zenbaitez Koldo Zabalak eta ondotik Mizel Théret-k irakatsirik, **gaur egun dantza tradizionalak ez dira gehiago CRReko irakaskuntzan sartuak.**

Euskal dantzak berriz CRRean integratzea **beharrezko parioa da, bai sinbolikoki bai pedagogikoki**, formakuntza musikalean eta koreografikoan, kontserbatorioa ezin hobea baita. Beste teknika batzuetatik etorri ikasle zenbaiti euskal dantza deskubriarazi liteke, baita dantza taldeetan gaitasun azkarrak dituzten gazteak errezibitu.

Marie Contraires (Maurice Ravel CRReko Lehendakari, eta Biarritzeko auzapezorde kultura gaietan), Arnaud Peruta (Maurice Ravel CRReko zuzendari) eta Elisabeth Lecussant (Maurice Ravel CRReko arduradun pedagogiko dantza arloan) ikusi ditugu horren aipatzeko. Egoerari

biziki sentsibleak izan dira, eta beharrezko baldintzak ukanez gero, horri buruz joatearen alde dira. Arnaud Perutak euskal dantzen irakaskuntza **CRReko programa pedagogikoan sartua izan dadin** nahi luke, osagai desberdinak inerbatu, eta eskolako beste diziplinez ez moztu, lehenago gertatu izan den bezala. **Lurraldean diren dantza taldeekin elkarlanean** aritzearen garrantzia azpimarratzen du.

Nagusi den dantza klasikoari “euskal dantza” osagarria gehitzea jadanik pentsatua da, hori, Hendaian plantan ezartzen ari den adarrean.

Hoberena litzateke epe ertainera, **“musika eta dantza tradizionalen” egiazko adarra sortzea Baionako CRRean**, ENMDL (Landetako ENMD) edo Musika eta Dantza Okzitaniarren Erakundeak proposatzen duenaren gisan. Emeki-emeki martxan ezartzen denarekin betan, adar pilotu bat ere behar liteke muntatu musika eta dantza tradizionalen inguruan, ikerketa saila gehituz, Bordeleko goi mailako irakaskuntza adarrarekin egitekoa. (CEFEDM eta Eusko Ikaskuntza).

Egiten ari den Baionako Arteen Hiriaren proiektuan (CRRarekin partekatzen dituen lokaletan), datu hori, obrak hasi aitzin integratu behar lukete. Izan ere, **lekua eskasean baldin bada, horrelako ikasketa ibilbidea ez liteke sortzen ahalko.**

EKE, CRR, DRAC, Kontseilu orokorraren eta Eskualdeko kontseiluaren laguntzarekin, laster Baionako Herriko etxearekin harremanetan sartu beharko da.

- **Tokien azpiegitura**

- *Gelak kurtso eta errepikentzat*

Dantza tradizional kurtso gehienak, erabilera anitzeko geletan edo gimnasioetan iragaiten dira, eta **ezaugarri teknikoek ez dituzte baldintza hoberenak eskaintzen dantzaren praktikarentzat**: parketa, barrak, talde handientzat espazio inportantea. Errepika gelak guti dira, eta ez dituzte dantzaren praktikarentzat arauak errespetatzen. Gelak antolatu behar dira, eta parketaren eta barren ezartzearekin hasi behar litzateke (grila tekniko baten ezartzea ere baliagarri litzateke).

Luhusoko gela kulturala, hastapenean dantzarentzat pentsatua izan zen, baina orain karrikako arteei (pistako arteak, dantza, antzerkia) eta euskal antzerkiaren sorkuntzei eskainia da. Hiru egoiliar badira: Petit Théâtre de Pain taldea, IDB eta Kilikolo Zirkoa. Ekoizpen eta zabaltze sare bati lotua den tokia da, Hegoaldeko eragileekin, Iparraldeko erakunde desberdinekin eta Akitaniako eskualdearekin elkarlanean ari dena. Filgi Claverie (Luhusoko Harri Xuri gelako zuzendari administratibo, Donostiako Dantzaz Konpainiako zuzendari), ekoizpen koreografikoari arrunt idekia da, baina tresna galdeen eta diziplina desberdinen arabera partekatu behar du, ondorioz, talde koreografikoen errepikentzat posibilitateak murrizten ditu. IDB egituraren barne bakartua dela aitortzen du.

- *Kreazio eta zabaltzearentzat laguntza beharra*

Iparraldean, alor koreografikoko eragile askok haien denbora dohainik ematen dute dantza tradizional ikusgarriak muntatzeko. Egin lanaren kalitatearentzat, talde horiek diru-laguntza bat merezi lukete Kontseilu orokorraren eta Eskualdeko kontseiluaren partez, baita egonaldiak egiteko posibilitatea, bereziki Biarritzeko CNNeen – hauek, jadanik bide horretan engaiatu dira. Tutoretzek eta EKEk hitzarmenak egin litzakete herriko eszenekin eta eszena nazionalarekin, baldintzen agirian azpimarratuz urtean aldi bat bederen horrelako ikusgarri motak zabaltzeko beharra. Oarak ekoizpen horien zabaltzea lagundu lezake.

b) IDB

Kontseilu orokorrak, Eskualdeko kontseiluak, DRACak, EKEk eta EEPk lagundurik, Iparraldeko Dantzarien Biltzarrak eskoletan dantza kurtsoak ematen ditu, dantza elkarretaratzeak antolatzen ditu, DVD edo liburuak ekoizten ditu, dantza irakasleak formatzen ditu, eta euskal dantzei buruzko artxiboak biltzen hasi da. Iban Ithurbide (IDBko lehendakari eta dantzari), Vilmika Matyas (IDBko koordinatzaile) zenbait aldiz ikusi ditugu inkesta denboran. Kezkatuak agertu dira eginbeharraren handitasunaren aitzinean, eta giza baliabideen eskasiaren aitzinean. Haien funtsezko eginbearra, dantza taldeen elkarretaratzea da, eta IDBk baizik egin lezakeen eginkizuna da. Euskal dantzek merezi luketen garapen garrantzitsuaren aitzinean, bide goresgarrietan barna abiatu dira, baina ez dute ez lokalik, ez gaitasunik (bilketa eta artxibatzearentzat adibidez). EKErekin elkarlan bat plantan ezarri behar liteke, honek proiektu handiak aitzinera eramaten lagundu bailezake, lehiaketaren antolaketa adibidez. Eginkizunak hobeki behar litezke banatu lekuko eragileen artean, eta bakoitzaren nortasuna argituko luke eta eginkizuna azkartuko.

5) Inkestarentzat ikusi pertsonen zerrenda (alfabetikoki zerrendatuak)

ABEBERRY Jakes, Biarritzeko axuanta, Biarritz Culture elkartearen eta Temps d’Aimer gertakariaren lehendakaria

ARKAIA Myriam, Dantza Hirian festibalaren lehendakaria (mugazgandiko dantza jaialdia hiri paisaietan)

BORDAXAR Jean, « Aintzindariak » xiberutar dantza taldearen arduraduna, pastorailegia

CLAVERIE Filgi, Luhusoko Harri Xuri gelaren zuzendari administratiboa eta Dantzaz konpainiaren zuzendaria (Donostia)

CHIFFERT Anne, Frantses Kultura eta komunikazio ministeritzaren inspektore nagusia

CONTRAIRES Marie, Maurice Ravel kontserbatorioaren lehendakaria eta Biarritzeko kultura axuanta

DUPUY Maddalen, Baigorriko Arrola dantza taldearen kide bat (dantzari, musikari eta erakasle)

DUHAU Henri, « *Lapurdiko ihauteriak eta mutxikoen pizkundea* » liburuaren idazlea

GIGNOUX Laurent, CEFEDM Aquitaine – Zuzendari orokorra

GOYHENECHÉ Roger, Leinua dantza taldearen koreografoa eta, SNBSA-ren zuzendaria

IRURETAGOIANA Claude, dantzari koreografoa - Maritzuli konpainia

ITHURBIDE Iban, dantzaria, IDB ren lehendakaria

ITURRALDE Lorentxa, EliraIE eta Kukai konpainien dantzari profesionala (ohikoa eta garaikidea)

ITZAINA Xabier, CNRS eko ikertzailea – Toberen ikerketetan berezitua, dantzari eta musikaria

LADOUSSE André, EKE n misio karguduna

LAMERAIN Benoit, Zarena Zarelako konpainia – musikari, musikaegilea

LANNES Arantxa, dantzaria

LARRALDE Christian, Anaigazteak konpainia – dantzari koreografoa

LARRALDE Patrick, ohiko musikan estadoko diplomatua, IDBren administrazio batzordeko kidea

LASCANO Pascale, Zarena Zarelako konpainia – dantzari koreografoa

LECUSSANT Elisabeth, Maurice Ravel kontserbatorioko dantza arduradun pedagogikoa

LE MOAL Philippe, Frantses Kultura eta komunikazio ministeritzan dantzaren inspektore koordinatzailea

MATYAS Vilmika, IDBko langilea

MAZZARESE Maxime, Aquitaniako Ohiko dantza eta musiken zentroko zuzendaria (Centre de musiques et danses traditionnelles en Aquitaine)

MECKEL Olivier, Misio karguduna (AS’COM) Kontseilu nagusiarentzat

NESPRIAS Jean, Orai bat balletak – dantzari musikaria

OBISPO Jérémie, Aquitaine lurralde kobtseilua : lurraldeetako hizkuntza eta kulturen arduraduna

OYHAMBURU Philippe, Etorki balletak – dantzari koreografoa, koru zuzendaria

PEREZ Patxi, dantzaria, mutxiko eta dantzaldietan aditua

PERUTA Arnaud, Maurice Ravel kontserbatorioko zuzendaria

PETRISSANS Céline, Dantza Hirian festibala, komunikazio arduraduna.

PONTHUS Olivier, Kontseilu Orokorra : Lurralde antolaketa, kulturen garapen eta hizkitzagintza politiken poloaren arduraduna (Chef de pôle Aménagement, développements culturels et politique linguistique)

RIVOIRE Josiane, CEFEDM Aquitaine – Dantza zuzendari pedagogikoa

TELLERIA Pantxika, Elirale konpainia, dantzari koreografoa

THERET Mizel, dantzari koreografoa

TRUFFAUT Thierry, etnologoa, besteak beste « *Joaldun et Kaskarot des carnivals en Pays Basque* » liburuaren autorea

ZABALA Koldo, Oldarra balletak - dantzari koreografoa

CCN Ballet Biarritz – Thierry Maladain eta Yves Kordian

Ekitaldi/erakusketak :

Dantzari Eguna 2010 - Baionan

Kukai konpainiaren Soka emanaldia (Jon Maia koreografoarekin topaketa)

Olaeta battetei buruzko erakusketaren bisita (Baionako Euskal Museoa)

Dantza Hirian festibalaren argazki erakusketaren bisita (Baionako Euskal Museoa)

2010ko urriaren 8tik 9ra : Seminarioa « Ohiko kulturak eta erakundeak : ohiko dantza eta musiken lekua Kontserbatorioan »